

Ikastetxeetan entzute aktiboa hobetzeko gakoak

Arretaz Entzun 2022 programan egindako
Entzutearen Testaren emaitzak.





Titulua: Ikastetxeetan entzute aktiboa hobetzeko gakoak. Arretaz Entzun 2022 programan egindako Entzutearen Testaren emaitzak.

© **Educo, 2022ko azaroa**

Lan hau osorik edo zati batean erreproduzi daiteke, edozein bitarteko edo prozeduraren bidez, iturria aipatzen bada eta helburu komertzialik gabe egiten bada.

Koordinazioa: Eragin eta Ikerketa Sozialeko Zuzendaritza

Testuak: Gema Luengo, Laura Orellana

Lankidetzak: Miriam Torán, Cristina Porras, Gonzalo de Castro, Paula San Pedro, Alba Delgado, Reinaldo Plasencia

Zuzenketa: Judith Escales

Diseinua: Elena Martí

Ilustrazioak: Eduard Altarriba

Argazkiak: Educo

Esker ona: Entzutearen Testean parte hartu duten ikastetxeei eta hezkuntza-komunitateei, eta, bereziki, Entzutearen Klubak osatu dituzten neska-mutilei, ideiak eman baitituzte beren hezkuntza- eta gizarte-inguruneetan entzutea eta bizikidetzak eraldatzeko.

Materialen kontsulta: Arretaz Entzun

Dokumentu honetan landutako gaiei buruz informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi helbide elektroniko honetara: educos@educos.org



Edukia

Sarrera	4
Metodologia	8
Zergatik Entzutearen Test bat?	8
Nork hartu du parte?	8
Zertarako balio dezake Entzutearen Testak?	8
Zer aurki daiteke txosten honetan?	10
Nori zuzenduta dago txosten hau?	11
Entzutearen Testen emaitzak	13
Zergatik ez dugu lantzen entzute aktiboa?	13
Zer nabarmentzen dute neska-mutilek haien artean harremanetan egoteko moduari buruz?	15
Nolakoa da eta nola hobetu daiteke haurren, nerabeen eta helduen arteko harremana?	18
Ikastetxeetan badago neska-mutilekiko diskriminaziorik?	22
Nolakoa da haurrek eta nerabeek parte hartzeko eta proposamenak aurrera eramateko duten gaitasuna?	27
Entzutearen Testetatik harago	32
Ondorioak eta hausnarketak	34
Gomendioak	41
Erreferentzia bibliografikoak	44

Sarrera

2020an, **Educok** Arretaz Entzun kanpaina abiarazi zuen entzute aktiboa sustatzeko eta, horren bidez, honakoa bultzatzeko: pertsona guztiekiko errespetua (adina edo bestelako aniztasunak alde batera utzita), bizikidetzak, gatazkak konpontzea, demokrazia eta haurren autonomia. **Ideia haurren hitzetatik sortu zen.** «Zure ustez, zein da haurren aurkako indarkeria egotearen arrazoi nagusia?» galderari erantzun biribila eman zioten: «Helduek ez dutela entzuten». Hori da *Érase una Voz* ikerketan (Educo, 2019) ateratako ondorioetako bat. Neska-mutilek adibideak kontatzen zituzten, non, haien aurkako indarkeria-egoera baten aurrean, helduek ez zieten sinesten, edo «ezikusiarena egiten zuten», edo «haurren kontuak dira» esaten zuten. Beren ideietatik abiatuta sortu zen honako helburuak lortzera bideratutako ekintzak sustatzeko proposamena: haurren eta nerabeen ahotsak entzutea ez ezik, horiek kontuan hartzea eta beren parte-hartze aktiboarekin aldaketak egiteko eragina izatea. **Beraz, entzute aktiboa sustatzea da helburua: erantzun bat eragiten duen entzutea, hurrekin harremanetan egoteko modua aldatzea.**

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren (1989) 12. artikuluan jasota dago beharrezkoa dela hurrekin entzute aktiboa egitea.

Entzuna izatea eskubide bat da, eta, gainera, ezinbesteko baldintza bat da hurrek parte-hartze eta herritartasun aktiboa gauza dezaten, demokratikoki, batez ere eguneroko eremuetan, adibidez, eskolan. Ikastetxeetako gobernantza onak oinarri ditu balio demokratikoak eta hezkuntza-komunitateko kideen parte-hartzea. Beraz, beharrezkoa da ikasleei eragiten dieten gaietan entzute aktibo iraunkorreko mekanismoak abiaraztea. Entzute hori kontsultaren bidez izan daiteke edo, elkarrekintza-maila handiagoarekin, sare

edo mekanismo parte-hartzaileagoetatik abiatuta, non denborak, topaguneak eta tresnak beharrezkoak diren hurrek eta nerabeek pentsatzen, irizten eta sentitzen dutena jakiteko. Horrela, **elkarrizketa bat ezartzen da**, eta horrek ahalbidetuko du hurbiltasuna izatea baliabideen kudeaketan eta erabakiak hartzeko eta ekintzak abian jartzeko orduan inplikatzeko. Hezkuntza-testuinguruan, demokrazia ez da testu edo ikasgai batean ikasten; aitzitik, demokrazian jardun behar da parte hartzeko benetako espazio batetik. Besteak eta guztion ongia errespetatzen, harremantzen, iritzi desberdinak baloratzen, konpromisoa hartzen, gatazkak modu baketsuan konpontzen eta abar ikasi beharra dago. Horretarako, garrantzitsua da metodologiak garatzea enpatia, kontzientzia soziala, komunikazio asertiboa eta bestelako trebetasunak indartzeko. Erronka bat da entzute aktiboa gauzatzea, ez haurren artean soilik, baita parte-hartze prozesuetan dauden haurren eta helduen artean ere. Hausnarketa eta praktika bidez landu beharko dituzte bi aldeek jarrerak eta gaitasunak. Proposamen eta ikuspegi pedagogiko ezberdinek jotzen dute ezinbesteko elementutzat entzutea. Duela hamarkada batzuk, Loris Magaluzzi maisuak **entzutearen pedagogia** bat gauzatzea proposatu zuen Reggio Emiliako (Italia) eskolen komunitate-testuinguruan. Proposamen horri jarraituz, «entzute anizkoitza» komunitate baten (maisua, haurrak eta familiak) egintza bat da, nor bere buruari entzuteko eta batzuek besteei entzuteko. Barne-entzuteetik abiatuta, norberaren ideiak eta hausnarketak aberastu eta aldatu egiten dira besteei entzunez, ideien konparazio, hartu-eman, talka eta birformulazio bidez. Ideia horiek erabaki demokratikoagoak hartzera garamatzate (Rinaldi, 2006). Eskolan entzute aktiboa egitearen proposamena berria

ez den arren, gaur egun norabide bakarrekoa izaten da helduen eta haurren arteko komunikazioa, eta ezagutzen eta aginduen transmisioan oinarritzen da. Entzuteak berekin dakar besteek maila pertsonalean eragiteari eta aldatzeari irekita egotea. Kontua ez da pasiboki, pentsatu gabe, entzutea, lehendik dakizun hori errepikatzeke, baizik eta **ideia berrien eraikuntzari eta eraldaketa pertsonalari irekita egotea, baita haurrak pertsona helduen solaskide direnean ere.**

Arretaz Entzun kanpainak ikastetxeei egiten dien proposamenaren helburu nagusia da ikastetxeetan hurrei eta nerabeei entzuteko komunitateen sare bat sustatzea, **Entzutearen Kluben parte-hartze prozesuak garatuz.** Prozesu horiek 11-17 urteko neska-mutilek osatuko dituzte, eta, hezkuntza-taldeekin eta irakasleekin batera, hainbat jardueratan parte-hartuko dute. Besteak beste, eragiten dien egoeraren diagnostikoan, elkarrizketan, hausnarketan eta ekintza-planen diseinuan, bai eta parte-hartzaileen arteko topaketetan ere, ikaskuntzak partekatzeke. Kanpaina, ikastetxeei zuzenduta egoteaz gain, **hedabideak, administrazio publikoak eta, oro har, gizartea sentsibilizatzen saiatzen da helduzentrismoari aurre egiteko haur eta nerabeak entzuteak duen garrantziaz.** Hain zuzen, helduzentrismoa da nagusitasunaren, pribilegioetarako sarbidearen eta adin-talde desberdinen arteko botere-desberdintasunaren ikuspegia, helduen mesedetan. Harreman desorekatu horiek jarduteko moduetan islatzen dira, hala nola «helduismo» izenekoan. Kontzeptu horrek erreferentzia egiten dio haur eta nerabeen gaitasunak, urte gutxiago izate hutsagatik, mugatzen edo zalantzan jartzen dituen jokabide, ekintza edo hizkera orori. Mezu helduistak ohikoak dira honelako esaldietan: «Handitzen zarenean eman ahal izango duzu zure iritzia» (Unicef, 2013).

Zergatik da garrantzitsua entzute aktiboa?

Ikastetxeetan entzute aktiboa sustatzen duten jarduerak garatzeko gida didaktikoan (Educo, 2020), sarreran, oinarri didaktiko bat jasotzen da entzute aktiboa maila ezberdinetan sustatzeko beharrari eta onurei buruz: harremanetarako; gizarte- eta hezkuntza-arlorako; bizikidetzarako eta gatazkak konpontzeko; demokrazia, parte-hartzea eta giza eskubideak sustatzeko; eta helduzentrismoa eta bestelako botere-moduak saihesteko. Laburbilduz, benetako entzute aktibo batekin:

- Autoestimua indartzen da.
- Hizkuntza estimulatu da.
- Bi noranzkoko komunikazioa sustatzen da.
- Informazio garrantzitsua eskuratzen da.
- Ezagutza eta erreferentzia kulturalak zabaltzen dira.
- Pentsamendu kritikoa, arduratsua eta sortzailea bultzatzen da.
- Ikasi egiten da.
- Adiskidetasuna eta harreman pertsonal onak lantzen dira.
- Berdintasunerako eta botere-banaketarako bidea errazten da.
- Giro baketsua sustatzen da.
- Erabaki hobeak hartzen dira (banaka zein taldean).
- Elkarlana eta berrikuntza bultzatzen dira.
- Bizikidetzaren demokratikoa errazten da.
- Haurren eskubideak betetzearen alde egiten da.

Helduismoa da helduek haurrei eta nerabeei ez entzutearen arrazoietakoa bat. Gainditzeko, umiltasuna, errekonozimendua eta errespetua behar dira. Helduek **ikasi egin behar dute laguntzen, gidatzen, entzuten, mugak eraikitzen, negoziatzen, hitz egiten, hezten eta harremanetan egoteko modu berriak garatzen, haur eta nerabeei dagokienez**. Gaitasun horiek guztiak sustatzeko, Educok Arretaz Entzun kanpainarekin bat egitera animatzen ditu helduak, batez ere haurrekin eta nerabeekin harremanetan dauden familiak eta pertsonak.

Parte-hartzea sustatzen duten hainbat fase gauzatzean oinarritzen da proposatzen dugun metodologia, hala nola Entzutearen Kluba sortzea (haur eta nerabeek osatua, tartean dauden pertsona helduekin batera), errealitatearen diagnostikoak egitea hainbat tresna baliatuz (dinamikak, ingurunearen esplorazioa, galdeketak, etab.), arazoen inguruan hausnarketa eta analisisia eta ekintzarako proposamenak egitea, emaitzak eta ikaskuntzak ospatu eta komunikatzea, eta prozesuan etengabe motibatzea eta ebaluatzea. **Diagnostiko-fasean, Educok tresna praktikoa eskaintzen du** irakasleentzat, familientzat eta haurrentzat: **Entzutearen Testa**. Hona hemen parte hartu duten ikastetxeek 2022ko lehen seihilekoan lortutako emaitzak.

Arretaz Entzun kanpainak hainbat baliabide jartzen ditu ikastetxeen eskura. Gure webgunean aurki ditzakezu **prozesu parte-hartzaileen bidez entzute aktiboa sustatzeko baliabide horiek**: www.activaescucha.org.

- Gida didaktikoa eta Entzutearen Kita, irakasleei eta hezkuntza-taldeeizuzendua, proiektua martxan jartzeko.
- Gazte ekintzaileentzako gida: ikasleentzako eta haien komunitate-ingurunearentzako ideia iradokitzaileak, mobilizazio-kanpainak diseinatzeko moduari buruz.
- Entzutearen Testa *online* formatuan, ikasleei, irakasleei eta familiei zuzendua, entzutearen eta bizikidetzaren egoeraren diagnostikoa egiteko.
- Ikastetxeei zuzendutako kartelak eta eskuorriak, kanpaina ezagutarazi eta bertan parte hartzera animatzeko.
- Web-plataforma, hezkuntza-komunitatearekin ideiak eta albisteak partekatzeko.

Baliabide horiez gain, Educoko talde teknikoak jarraipena eta laguntza ematen die irakasleei, prozesu parte-hartzaileak sustatzeko eta mobilizazio-kanpainak diseinatzeko. Ilde horretan, irakasleentzako, ikasleentzako eta familientzako prestakuntza-kapsulak egiten dira entzute aktiboa eta bizikidetzahobeagoa sustatzeko, eta topaketa birtualak antolatzen dira proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetako ikasleen artean.



Metodologia

Zergatik Entzutearen Test bat?


Entzutearen Testa egitea proposatu da **entzute aktiboaren garrantziaz sentsibilizatzeko eta ikastetxeetan prozesu parte-hartzaileak sustatzeko**. Ikastetxeei *online* formatuan eskaintzen zaien tresna bat da, hasierako egoera aztertzerako bultzatzeko eta ikastetxean entzutea nolakoa den hausnartzeko animatzeko taldean eta jarrera kritikoarekin. Adibidez, norbanakoen jarrerak nolakoak diren aztertzen saiatzen da, baita komunikazio-gaitasunak nolakoak diren ere ikasleen arteko zein ikasleen eta helduen (familiak eta irakasleak) arteko harremanetan. Horrez gain, entzute aktiboa eta komunitate mailan aldaketak sustatzeko haurren agentzia errazteko elementuak, egiturak eta eragileak identifikatzen saiatzen da. Generoaren eta aniztasunaren ikuspegitik

diseinatu da, eta erantzun-aukerak dituzten galderak zein galdera irekiak sartu dira. Horien erantzunak sailkatu egin dira, datuen analisi kualitatiboa egiteko. Elementu horiek guztiak baliagarriak izan dira ekintza-plan bat aztertzeko, hausnartzeko, diseinatzeko eta garatzeko informazioa biltzeko, eta, horren bidez, hezkuntza-komunitatean hobetu daitezkeen egoeretan aldaketak eragiteko.


Nork hartu du parte?

2021/2022 ikasturtean 628 pertsonak hartu dute parte Entzutearen Testean. Hiru test mota egin dira: bat irakasleentzat, beste bat haur eta nerabeentzat eta bestea haien familientzat. Guztira, 451 haurrek eta nerabek, 74 irakaslek eta 103 familiak hartu dute parte.


1. grafikoa: Entzutearen Testeko parte-hartzaileak, guztira



2. grafikoa: Ikasleak sexuaren/generoaren arabera




3. grafikoa: Ikasleak mailaren arabera




Iturria: geuk egina.

4. grafikoa: Irakasleak sexuaren/generoaren arabera



5. grafikoa: Familiak sexuaren/generoaren arabera



Iturria: geuk egina.

Zertarako balio dezake Entzutearen Testak?

Testaren banakako emaitzek **hausnarketa pertsonala** bultzatu dute berehala galdetegia *online* formatuan egiterakoan; adibidez, aztertzen laguntzen dute banaka entzute aktiboagoa praktikan jartzeko zer hobetu daitekeen. Ikastetxe bakoitzeko datu eta emaitza kolektiboak biltzeak **talde-hausnarketa** sustatu du, Educoko talde teknikoak emandako txosten zehatzetan oinarrituta. Txosten horietan ikastetxe bakoitzeko Entzutearen Klubak animatzen ziren emaitzetatik abiatuta hausnartzera, honako gaien inguruan: Zer iruditu zaizue deigarria? Oro har emaitzak positiboak edo negatiboak direla uste duzue? Mutilek eta neskek berdin pentsatzen dutela uste duzue? Eta adin ezberdinetako neska-mutilek? Zein izan daiteke hobetu beharreko arazoa edo alderdia, ikasleen arteko entzute aktiboari buruzko datuen arabera? Eta ikasleen eta irakasleen arteko entzute aktiboari buruzko datuen arabera? Eta ikasleen, irakasleen eta familien arteko entzute aktiboari buruzko datuen arabera? Irakasleek zuen iritzi bera dute? Eta zuen familiek? Zein alde ikusten dituzue? Zer ekintza bururatzen zaizue arazo horren inguruan sentsibilizatzeko eta galdera horretan testaren emaitzak hobetzen laguntzeko? Beste talde batzuekin egin dezakezen ekintzarik bururatzen zaizue ikastetxeetan eta zuen inguruan entzutea hobetzeko?

Gainera, ikasturtearen amaieran, hainbat ikastetxetako Entzutearen Kluben topaketa sustatu da, eta bertan partekatu dira diagnostikoetan azaldutako gai komunak zein talde bakoitzaren ideiak eta proposamenak.

Zer aurki daiteke txosten honetan?

Txosten honek ikastetxeen datu-bilketan lortutako emaitza orokor esanguratsuenen laburpena jasotzen du: batetik, Entzutearen Testean eskuratutako emaitzak (Entzutearen Testen emaitzak kapituluko 1. ataletik 5.era bitartean) eta, bestetik, 2021/2022 ikasturtean Entzutearen Kluben topaketan eskuratutakoak (kapitulu bereko 6. atalean). Educoko talde teknikoak egindako analisi bat da, **eta tresna baliagarria izan daiteke elkarrizketa, hausnarketa eta jarrera kritikoa sustatzeko, Entzutearen Klubetan edo eskolan parte hartzeko beste egitura batzuetan partaide diren neska-mutilen artean, baina baita parte-hartzea eta eskola-bizikidetzak sustatzeko ardura duten helduen artean ere**. Emaitzak aztertzeko eta gaien inguruan –partekatu daitezke, edo ez– hausnartzeko gonbit egiten da, honako helburuak lortzeko lagungarria izan dadin: gai zehatzen beste diagnostiko batzuk abian jartzea, erabakiak hartzea eta ekintzak diseinatzea, partekatu daitezkeen edo azterketa- eta hausnarketa-prozesuan agertu diren arazoetako batzuk hobetzeko.

Nori zuzenduta dago txosten hau?

Neska-mutilen iritziak eta ideiak entzuteko eta ezagutzeko interesa duen pertsona orori zuzenduta dago txosten hau. **Beren hezkuntza-testuinguruan eragiten dieten gaiei buruz duten ikuspegia ezagutzea lehen urrats bat da; horri esker, lankidetzaz esparruak sustatuko dira, haien ingurunearen eraldaketa eurekin batera lantzeko.** Adibidez, honako hauei zuzenduta dago:

- **Irakasleei:** aukera izan dezaten eragiten dieten proposamenak ezagutzeko eta ikasgelan eta hezkuntza-testuinguruan hobekuntza-ekintzak eta tratu ona sustatzeko, bai harremanei dagokienez, bai metodologia berriak abian jartzeko, antolaketa aldatzeko edo elkarriketaz gune berriak sortzeko.
- **Familiei:** helduen eta haurren eta nerabeen arteko komunikazioa eta harremanak hobetzeko, bai eta familien eta ikastetxeen artekoak ere.

- **Komunikabideei:** estereotiporik gabeko haurren eta nerabeen irudi bat emateko, haien benetako beharren eta eskaeren berri emateko, eta haurrei eta nerabeei aldatu nahi duten horretan laguntzeko, haiei protagonismoa emanez.
- **Erabakiak hartzen dituztenei:** haurrak eta nerabeak egungo herritar gisa entzun ditzaten, eta, horrela, sustatzen dituzten gobernantza-moduetan, parte-hartzea eta entzute aktiboa zeharkakoak izan daitezen politika guztietan eta politika horien ezarpenean.
- **Herritar guztiei:** helduzentrismoari aurre egiten laguntzeko, haurren eta nerabeen eskubideak urratzen baititu gizartean barneratu den botere-modu horrek.
- **Haurrei eta nerabeei** laburpen bat egin zaie, infografia gisa, txosten honetan aurkezten diren ondorio eta proposamen nagusiekin.
- **Haurrentzako eta nerabeentzako** egokitutako dokumentu hori hemen eskura daiteke: www.activaescucha.org





Entzutearen Testen emaitzak

Zergatik ez dugu lantzen entzute aktiboa?

«Badakit halakorik balego mundua hobea izango litzatekeela.»

(Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikaslea)

Neska-mutilek adierazi dute **komunikazio-arazoak** direla pertsonen artean entzute aktiborik ez izatearen arrazoi nagusia (elkarri moztea, arretarik ez jartzea, beste gauza batzuetan aritzea...) eta, askotan, elkarrizketan edo gainerako pertsonak esan behar duten horretan **interesik ez izatearekin** lotzen dute. Ildo horretan, ikasleen % 41ek interes faltarekin eta komunikazio-arazoekin zerikusia duten erantzunak eman dizkiote honako galderari: «Mesedez, azaldu zure ustez zergatik ez dagoen entzute aktiborik pertsonen artean».

Pertsona batzuek beren erantzunetan bakarrik pentsatzen dute eta ez dute besteen txanda errespetatzen eta ezin dute elkar ulertu.

(Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikaslea)

Batzuek ez dakite entzuten eta ez dute hitz egiten uzten, hitz egiteko txanda moztu eta haiek hasten dira baimenik eskatu gabe. Bestearen lekuan jarri eta entzun egin beharra dago.

(DBHko 4. mailako ikaslea)

Halaber, uste dute **berekoikeria eta enpatia falta** direla entzute aktiboa ez egitearen arrazoi nagusietako bat, eta, ildo horretan, baita beti arrazoia dugula pentsatzea ere. Arazo horrekin zerikusia duten erantzunak eman dizkiote ikasleen % 29k «Mesedez, azaldu zure ustez

zergatik ez dagoen entzute aktiborik pertsonen artean» galderari.

Beti arrazoia izan nahi dute eta ez dituzte besteen iritzia ez errespetatzen ez entzuten.

(Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikaslea)

Besteenganako interesik eta enpatiarik ez izatearen ondorio izan daiteke entzute aktibo falta. (Batxilergoko 1. mailako ikaslea)

Ez dakigu gainerako pertsonak onartzen. Uste dugu okerragoak direla gure gustuak ez dituztelako edo ezaugarri ezberdin bat dutelako.

(DBHko 3. mailako ikaslea)

Zenbait **beldur** ere aipatzen dituzte entzute aktiborik ez izatearen arrazoi gisa, eta beldur horiek lotura dute haien iritzia epaituko ote dituzten lotsarekin edo kezkarrekin. Erantzun guztien % 7 daude beldurren arazo honekin lotuta. Ildo horretan, neskek mutilek baino gehiago aipatu ohi dute beldurraren arrazoia (ikus, horri dagokionez, «Badago neska-mutilekiko diskriminaziorik ikastetxeetan?» atala).

Beldur horiek zerikusia dute **konfiantzarik ez izatearekin**. Era berean, konfiantza eza ere aipatzen dute, pertsonen ezagutza ezarekin

batera, komunikatzeko eta gainerakoei entzuteko arazoak eragiten dituzten arrazoen artean (erantzun guztien % 9).

Jendeak bestelako iritziak izatearen beldur dira, edo hori dela-eta lotsa sentitzen dute. (DBHko 4. mailako ikaslea)

Jendea bere iritzia ematearen beldur da, bere ideiak ingurukoen oso bestelakoak direla pentsatzen duelako. Eta horrek konfiantza gutxi izatea eragiten die, eta ez badakizu zeure buruari entzuten, ez dakizu gainerakoei entzuten. (DBHko 1. mailako ikaslea)

Norbaitekin edo norberarengan konfiantzarik ez izateagatik. (DBHko 3. mailako ikaslea)

Azkenik, neurri txikiagoan bada ere (% 5), **errespeturik edo hezierarik** eza aipatzen dute entzute aktiborik ez egitearen arrazoen artean.

Gauza bera pentsatzen dute irakasleek eta familiek?

Irakasleek eta familiek uste dute **berekoikeria eta enpatiarik eza** direla pertsonen artean entzute aktiborik ez izateko arrazoi nagusia. Hori bat dator haurrek eta nerabeek aipatutako arrazoietakoa batekin. Baina, ikasleek ez bezala, helduek **denbora faltaz eta zereginen gehiegizko kargaz** ere hitz egiten dute.

Familiek entzute aktiborik ez izateko arrazoen kategoria bat sartzen dute: **teknologia berriak**. Haurrek eta nerabeek ia ez dute aipatzen telefono mugikorraren edo teknologiaren erabilera distrakzioen arazoia denik (349tik 4k, % 1,1ek).

Kanpoko estimulak izan litezke arrazoietakoa bat, hala nola mugikorrak, telebista eta tabletak, entzute aktiborako beharrezkoa den kontzentrazioa ez egotea eragiten baitute. (31 eta 50 urte bitarteko ama)


ez dute interesik berekoikeria beldurra eta lotsa

konfiantzarik eza
errespeturik eza

Zer nabarmentzen dute neska-mutilek haien artean harremanetan egoteko moduari buruz?

«Jarrera irekiagoak eta enpatia eta tolerantzia handiagoa izateak lagun dezakete ikasleen arteko harremanak hobetzen.» (Batxilergoko 1. mailako ikaslea)

6. grafikoa: Ikasi duzu besteak balioesten taldean lan egitean haien ideiak entzuten?



Iturria: geuk egina Entzutearen Testeko galderaren emaitzetan oinarrituta.


Ikasleen ia % 80k diote beste ikaskideak balioesten ikasi dutela taldean lan egitean haien ideiak entzuten. Horrek adierazten du entzutea garrantzitsua dela gainerakoak aintzat hartzen laguntzeko¹. Emaitza horrek lotura zuzena du ikasleen artean errepikatzen den beste ideia batekin: lankidetzaren eta talde-lana sustatzeko beharra, **berdinen arteko konfiantza sortzeko**

tresna den heinean. Adibidez, «Mesedez, pentsatu zure ustez zerk hobe ditzakeen ikasleen arteko harremanak» galderan, gehienek (% 31) **konfiantza, kidetasuna eta lankidetzaren indartzeko beharra aipatu dituzte.**

«Zure ustez, helduagoak diren neska-mutillak gazteagoak direnak baino gehiago sentitzen

¹ «Ikasi duzu besteak balioesten taldean lan egitean haien ideiak entzuten?» galderan «beti» edo «askotan» erantzun duten ikasleen kopurua.

7. grafikoa: Zure ustez, helduagoak diren neska-mutilak gazteagoak direnak baino gehiago sentitzen dira?



Iturria: geuk egin Entzutearen Testeko galderaren emaitzetan oinarrituta.

dira?» galdetuta, erantzun gehienek (ia % 70) adierazten **dute ikasleek uste dutela pertsona helduagoak gehiago sentitzen direla**: ikasleen % 69k «beti» edo «askotan» erantzun diote galdera horri.

Nola hobe daitezke ikasleen arteko harremanak?

Neska-mutilei galdetu diegunean ikasleen arteko harremanak hobetzeko zein proposamen dituzten, oro har, erantzunek adierazten dute (guztizkoaren % 31) **ikasleen arteko konfiantza sendotu behar dela**. Horrez gain, lankidetzaz pizpimarratzen da, batetik, eta, bestetik, tratua:

Ikasleen arteko konfiantza edo kideatasuna sendotzen lagun dezaketen taldekako jarduerak.
(DBHko 4. mailako ikaslea)

Adeitasuna, talde-lana eta besteei entzutea. (LHko 5. mailako ikaslea)

Talde txikian edo gela osoaren artean egiteko jarduerak. Gela osoa jarduera bera egiten ari garenean, gure artean komunikatzen gara eta ikaskideekiko harremana hobetzen dugu. Adibidez, irteerak. Autobusean gure artean hitz egiten dugu eta guztiok batera barre egiten dugu. (DBHko 3. mailako ikaslea)

² Ikasleen arteko harremanak hobetzeko ideiak eskatu ditugunean, hurrenez hurren, ikasleen % 31k beren arteko konfiantza sendotzearekin lotutako proposamenak egin dituzte, % 27k tolerantziarekin eta enpatiarekin zerikusia duten erantzunak eman dituzte, eta % 16k gehiago hitz egiteko eta entzuteko behararekin zerikusia dutenak. % 9k ahozko komunikazioan errespetua sustatzea aipatu dute.

Bigarrenik, ikasleen arteko harremanak hobetzeko neska-mutilek egindako proposamenek **lotura dute tolerantzian eta errespetuan oinarritutako harremanak izateko** beharrarekin, ezberdintasunak **enpatiaz** ulertuz eta onartuz (guztizkoaren % 27).

Errespetu handiagoa izatea, helduagoak izateagatik gehiago direla ez pentsatzea.
(DBHko 2. mailako ikaslea)

Jendeak gainerako pertsonak gehiago baloratu beharko lituzke, eta ez lituzke gainerakoak kritikatu behar itxuragatik edo esandako zerbaitengatik.
(DBHko 4. mailako ikaslea)

Jarrera irekiagoa eta enpatia eta tolerantzia handiagoa izateak lagun dezake ikasleen arteko harremanak hobetzen. (Batxilergoko 1. mailako ikaslea)

Ikasleen arteko harremana hobetzeko moduei buruzko galderari emandako hirugarren erantzun nagusiak (% 16) zerikusia du elkarri **gehiago hitz egin eta entzutearekin**. Lotura zuzena du Entzutearen Testaren emaitza ezberdinetan atera den beste gai batekin, nahiz eta ez den hainbeste errepikatu (guztizkoaren % 9). Hain zuzen, **errespetuz komunikatzeaz** jardun dute, eta errespetu handiagoa izatearen ideia gauzak esateko, komunikatzeko moduarekin lotu dute (adibidez, ikus errespeturik ez izatearen arrazoia «Zergatik ez dugu entzute aktiboa lantzen?» atalean).

Jendeak zuri entzutea eta hanka sartzeagatik tonto gisa ez tratatzea.
(DBHko 4. mailako ikaslea)

Gatazkak hitz eginez konpontzea.
Ikaskideari beti entzutea eta errespetuz tratatzea, beti iraintzen ibili gabe.
Ikaskide batek beste batengatik egiten dituen gauza on guztiak kontuan izatea.
(LHko 5. mailako ikaslea)

Azkenik, ikasleen gutxiengo batek (% 5) jokabidea hobetzearekin lotura duten ideiak jartzen ditu haien arteko **harremana hobetzeko** oinarrian.

konfiantza
enpatia
hitz egitea eta
entzutea
konfiantzarik eza
jokabidea hobetzea

Nolakoa da eta nola hobetu daiteke haurren, nerabeen eta helduen arteko harremana?

«Konfiantza gehiago eman, babesa eskaini, hitz egin eta kezkatu.»
(DBHko 3. mailako ikaslea)


Zer uste dute neska-mutilek helduekin duten harremanaz?

Entzutearen Testaren emaitza aipagarrienetako bat neska-mutilek beren familiekiko eta irakasleekiko erakusten duten **konfiantzarik eza** da.

«Zure familiarekin dituzun ideiez, sentimenduez edo arazoez hitz egin ahal izateko askatasuna eta konfiantza dituzu» baieztapenaren aurrean, **ikasleen ia % 40k adierazi dute inoiz ez edo batzuetan bakarrik sentitzen dutela konfiantza** familiarekin hitz egin ahal izateko:

ikasleen % 37k erantzun diote galdera horri «inoiz ez» edo «batzuetan». Zehazki, % 10ek erantzun dute inoiz ez dutela horretarako askatasuna eta konfiantza sentitzen. Gainera, nesken kasuan handiagoa da konfiantza gutxiago izateko joera (ikus, horren harira, «Ikastetxeetan badago neska-mutilekiko diskriminaziorik?» atala). Deigarria da emaitza hauek familiei egindako galderaren emaitzekin alderatzea. Izan ere, «Zure semeak/alabak zerbait kontatu nahi badizu eta ausartzen ez bada, konfiantzaz hitz egitera animatu eta laguntzen diozu» baieztapenaren aurrean, familia gehienek (% 88) erantzun dute beti animatzen dituztela konfiantza hori izatera.

8. grafikoa: Zure familiarekin dituzun ideiez, proposamenez, sentimenduez edo arazoez hitz egin ahal izateko askatasuna eta konfiantza dituzu:



Iturria: geuk egina Entzutearen Testeko galderaren emaitzetan oinarrituta.

Ikasleek ez dute konfiantzarik familian harremantzeko eta ideiak adierazteko orduan, baina konfiantzarik eza are gehiago nabarmentzen da **irakasleekin**. «Zure irakasleekin dituzun ideiez, proposamenez, sentimenduez edo arazoez hitz egiteko askatasuna eta konfiantza dituzu» baieztapenari **ikasleen % 60k baino gehiagok erantzun diote konfiantzarik ez dutela**. % 61ek adierazi dute «inoiz ez» edo «batzuetan» bakarrik sentitzen dutela irakasleekin hitz egin ahal izateko konfiantza. Zehazki, % 20k esan dute «inoiz ez».

Nolakoa da haurren, nerabeen eta helduen arteko harremana, helduen arabera?

Irakasleei zein familiei egindako Entzutearen Testetik emaitza esanguratsuak atera dira helduek, kasu askotan, haurrekin eta nerabeekin duten harremana ikusteko duten moduari dagokionez. «Ikasleekin mintzo zarenean, zure proposamena edo iritzia buruan sartzen saiatzen zara haientzat onena zer den badakizulako» baieztapena eginda, **ia irakasleen % 40k erantzun dute baietz, beren iritzia buruan sartzen saiatzen direla, haientzat onena zer den badakitela pentsatzen dutelako**³. % 53k erantzun dute «batzuetan» egiten dutela, eta % 8k bakarrik «inoiz ez».

Familientzako Entzutearen Testaren kasuan, **«Zure semeak/alabak zure iritzia behar duela sentitzen duzu, esperientzia handiagoa duzula uste duzulako eta arrazoia izaten duzulako» galdetuta, familien % 40k baino gehiagok baietz erantzun dute**. Familien % 41ek adierazi dute haurrak beti edo askotan behar izaten duela beren iritzia, pertsona heldua izaten delako arrazoia duena. Aitzitik, % 54k erantzun dute batzuetan hala izaten dela, eta % 5ek bakarrik inoiz ezetz.

Hori horrela, Entzutearen Testen emaitzek hainbat puntutan erakusten dute **kultura helduzentristak** bere horretan dirauela, eta kultura horrek oinarrian dituela haurrei eta nerabeei eragiten dieten erabakiei buruzko ikuspegi protekzionista eta paternalista.

Bestalde, ikasleek Entzutearen Testeko galdera irekiei emandako erantzunek erakusten dute ez datozela bat ikuspegi helduzentrista horrekin eta zalantzan jartzen dutela bere baliagarritasuna, zenbaitetan estereotipotzat jotzen baitute.


Ez dezatela pentsa adingabeok heldutasunik ez dugunik eta ezin dugunik zentzuz pentsatu.
(DBHko 3. mailako ikaslea)

Uste dut ez gaituztela tratatu behar agintzen dutenak eta irakatsi behar digutenak balira bezala. Nire ustez, askotan ikasleok irakasleei gehiago irakatsi diezaiekegu haiek guri baino, eta askotan konfiantza handiagoa izaten dugu gertutasunez tratatzen gaituen irakasle batekin urrunekoa den batekin baino. (DBHko 3. mailako ikaslea)

Haurrek ere baditugula ideiak.
(DBHko 3. mailako ikaslea)

³ Hori «beti» edo «askotan» egiten dutela erantzun duten irakasleen kopurua: % 38.

9. grafikoa: Hausnartu, mesedez, zure ustez ikasleen eta irakasleen arteko harremanak hobetzeko balio duten ideia batzuen inguruan:



Iturria: geuk egina Entzutearen Testeko galderaren erantzunen sailkapena oinarri hartuta.
*Ehunekoek ez dute hamartarik.

Zer proposamen dituzu haurren eta nerabeen eta helduen arteko harremanak hobetzen laguntzeko?

Neska-mutilei ikasleen eta irakasleen arteko harremanak hobetzen laguntzeko ideiei buruz galdetzean, % 34k azpimarratu dute **jarrera ona behar dela tratuan**, hau da, harremantzeko orduan beharrezkoa dela gertutasuna eta adeitasuna, elkar errespetatzea eta hitz egiteko modu hobeak erabiltzea, etab.

Irakasleak ulertuak sentiarazten gaituenean sortzen dira irakasleen eta ikasleen arteko harremanik onenak. Ikusten dugunean irakasle batek guran interesik ez duela, guk ere ez dugu berarengan inongo interesik izango.
(DBHko 4. mailako ikaslea)

Gertutasunez hitz egitea.
(DBHko 3. mailako ikaslea)

Era berean, neska-mutil gehienek (beste % 34) nabarmentzen dute gehiago hitz egiteko beharra, baita **hitz egiteko eta entzuteko denbora gehiago izatea ere**.

Denok askatasun osoz hitz egin ahal izateko eguneko ordu bat.
(LHko 6. mailako ikaslea)

Jarduera batzuk egitea irakasleei haien irakasteko moduz gustatzen zaiguna, ez zaiguna edo aldatuko genukeena esan ahal izateko. (DBHko 2. mailako ikaslea)

*Irakasleek gehiago entzun gaitzatela
eta gurekin gehiago hitz egin dezatela.*
(DBHko 1. mailako ikaslea)

Ikasleek berriz nabarmentzen dute **konfiantza indartzea** (guztizkoaren % 15) irakasleekin harremanak hobetzen laguntzeko. Batez ere, elkar hobeto ezagutzeko aukera emango dieten jarduerak egitea aipatzen dute.

*Konfiantza gehiago ematea, babesa
eskaintzea, hitz egitea eta kezkatzea.*
(DBHko 3. mailako ikaslea)

*Irakasleek konfiantza handiagoa erakutsi
beharko lukete ikasleekin, ikasleak
seguruago senti daitezen beren arazoak
kontatzeko. (DBHko 4. mailako ikaslea)*

Elkar hobeto ezagutzeko jolasak egitea.
(LHko 6. mailako ikaslea)

Azkenik, neska-mutilen % 5ek beren buruengan jartzen dute irakasleekin harremanak hobetzeko ardura, jokabidea hobetzeko beharra adieraziz. Aitzitik, % 3k argi adierazten dute ikasleen proposamenak eta iritziak kontuan hartu behar direla. Erantzunen % 8 askotarikoak dira eta «Beste batzuk» kategorian sailkatu dira.

Irakasleen eta familien proposamenak bat datoz ikasleenekin?

Irakasle gehienek (ia % 35ek), irakasleen eta ikasleen arteko harremanak hobetzeko zer proposamen dituzten galdetuta, haiekin **batera jarduerak** egitea proposatzen dute konfiantza indartzeko (bizikidetza-jardunaldiak, irteerak, tailerrak, aisialdia partekatzea...). Aipagarria da, halaber, **hitz egiteko eta entzuteko denbora sustatzeari eta areagotzeari lotutako erantzun kopuru handia** (% 25 baino gehiago).

*Elkarri entzuteko kalitate handiagoko
uneak zehaztea, eta une horiek esparru
didaktiko hutsetik bereizten jakitea.*
(50 urtetik gorako irakaslea)

Familiei galdetzean zer izan daitekeen lagungarria familia bereko haurren eta nerabeen eta helduen arteko harremanak hobetzeko, erantzun gehienek (guztizkoaren % 50) elkarrizketa, entzutea eta horiei eskaintzen zaien denbora sustatzeko beharrarekin dute zerikusia. Era berean, proposamenen % 21ek zerikusia dute honakoa sustatzearekin: konfiantza-egoerak (elkarri maitasunez, pazientziaz, etab. tratatzea, komunikatzeko gaitasuna **sustatzeko**). **Erantzun ezberdinenek** (guztizkoaren % 11), neska-mutilek adierazitakoekin alderatuta,

tratu
ona
gehiago hitz
egitea
eta entzutea
konfiantza
gu aintzat hartzea
jokabidea hobetzea

zerikusia dute komunikazio ona sustatzeko **teknologia berrien erabilera murrizteko** beharrarekin.

Maiz hitz egitea, egunean zehar gertatu zaienarekiko interesa erakustea eta zure eguna nola joan den ere kontatzea. Bazkaldu edo afaldu bitartean hitz egitea, edo afaldu ostean tarte bat hartzea egunaz hitz egiteko eta konfiantza sendotzeko.
(31 eta 50 urte bitarteko ama)

Egunero hamabost minutu hartzea hitz egiteko. (31 eta 50 urte bitarteko ama)

Beraz, helduen Entzutearen Testaren emaitzek adierazten dute hainbat puntutan bat datozela haurrek eta nerabeek proposatzen dutenarekin. Batez ere, bat datoz honetan: **beharrezkoa da entzuteko denbora eta une gehiago izatea eta konfiantza sendotzea**. Teknologia berrien erabilera murrizteko proposamena nabarmentzen da erantzun ezberdinen artean. Familiek aipatzen dute, baina neska-mutilek ez.

Ikastetxeetan badago neska-mutilekiko diskriminaziorik?

«Batzueta mutil batzuek ez digute futboleko jokatzeko uzten neska izate hutsagatik. Eta, gainera, ezberdin tratatzen gaituzte neskak garelako.»
(DBHko 1. mailako ikaslea)

Ikasleen ia % 40k diote beren ikastetxeetan noizbait diskriminazioa pairatu dutela. «Ikastetxean sentitu duzu nolabaiteko diskriminaziorik?» galderari erantzutean, ikasleen % 25,72k adierazi dute batzuetan diskriminazioa jasan dutela; % 8,87k askotan, eta % 3,55ek beti. Emaitza horiek ez datoz bat irakasleek galdera berari emandako erantzunekin; izan ere, irakasleen % 70ek diote ikasleek ez dutela inoiz diskriminaziorik pairatu.


Diskriminazio motari eta/edo arrazoiei buruz galdetzean, neska-mutilek askotariko gaien inguruan hitz egin dute⁴:

Ikasleen laurdenak baino gehiagok adierazi dute **eskola-jazarpenarekin** lotutako indarkeria jasan dutela (indarkeria psikologikoa, hitzezkoa, fisikoa...).

Batzuetan iraindu egiten naute, baztertu egiten naute eta gauza gehiago, baina ez dakit zergatik. (LHko 6. mailako ikaslea)

⁴ «Diskriminazio motaren bat jasan baduzu, azaldu, mesedez, zer motatakoa izan den eta zure ustez zein den horren arrazoia» galderaren erantzunak. «Beste batzuk» kategorian jasotako erantzun gehienetan «Ez dakit» edo «Ez dut erantzun nahi» adierazten dute, horregatik agertzen da bigarren postuan.

10. grafikoa: Diskriminazio motaren bat jasan baduzu, azaldu, mesedez, zer motatakoa izan den eta zure ustez zein den horren arrazoa:



Iturria: geuk egina Entzutearen Testeko galderaren erantzunen sailkapena oinarri hartuta.

Itxura fisikoa oinarritutako diskriminazioa da gehien aipatzen den diskriminazio mota. Asko aipatzen da, halaber, **ideia, gustu edo izateko modu ezberdinak** izatearekin zerikusia duena.

Besteak ez bezala sentitzeagatik, beste era batera janzteagatik, ezberdin hitz egiteagatik edo zuretzat garrantzitsua den zerbaiti buruz hitz egitean ez dutelako zure iritzia kontuan hartzen eta ez dizutelako entzuten.

(DBHko 1. mailako ikaslea)

Era berean, **arrazakeria** aipatzen da (jatorria edo nazionalitatea, arraza, hizkuntza... direla eta):

Arrazakeria. Arrazoa da beldur direla.

(DBHko 3. mailako ikaslea)

Adinagatiko diskriminazioa ere aipatzen dute neska-mutilek, baina gutxitan, grafikoa ikus daitekeen bezala.

Helduek botere handiagoa dutela sentitu dut, eta beti haiek esaten dutena egin behar izaten dut, eta beti izango dute arrazoa. Haurrok ez dakigula nolakoa den bizitza eta ergeltzat hartzen gaituztela. (LHko 6. mailako ikaslea)

Irakasleak horretaz jabetzen dira kasu batzuetan, eta helduzentrismoak haurren eta nerabeen gutxiespena dakarrela aipatzen dute.

Helduzentrismoa. Ikasleen ordeztu erabakitzen dugu beren iritzia entzun gabe, haurrak izate hutsagatik. (31 eta 50 urte bitarteko irakaslea)

Hala ere, oro har, **irakasle gehienek ez diote erantzuten ikasleek irakasleen aldetik diskriminaziorik jasan duten galderari**, eta, kasu batzuetan, ikusten da haurren eskubideak aintzat hartzen ez dituen begirada helduzentristak oso presente jarraitzen duela.

Ez dut horrelakorik sentitu, eta nahastu egiten ditugu diskriminazioa eta ikasle-taldeari eragiten dion eta jarrerarekin zerikusia duen errieta.⁵
(50 urtetik gorako irakaslea)

eskola-jazarpena itxura fisikoa ideiak Matxismoa homofobia arrazakeria adina eskola-errendimendua

Nolakoa da neska-mutilen arteko harremana?

Entzutearen Testen emaitzek erakusten dutenez, diskriminazio-adierazpenen artean, neskek mutilek baino gehiagotan adierazi dute eskola-jazarpena jasan dutela: guztira % 26k eman dituzte eskola-jazarpenarekin lotutako erantzunak eta, horien artean, % 18 neskak ziren eta % 8 mutilak. Era berean, neskek mutilek baino neurri handiagoan adierazi dute beren itxura fisikoagatik diskriminazioa jasan dutela (arrazoi horrekin lotutako erantzunak eman zituzten % 15en artean, % 12 neskak ziren eta % 3 mutilak). Horrek berretsi egiten du neska gazteen eta helduen gorputzen itxurarekin zerikusia dutela genero-estereotipo askok.

Generoan eta/edo sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioa da neska-mutilek aipatzen duten beste diskriminazio modu bat:

Batzuetan mutil batzuek ez digute futboleko jokatzen uzten neska izate hutsagatik. Eta, gainera, ezberdin tratatzen gaituzte neskak garelako.
(DBHko 1. mailako ikaslea)

Homofobia da (diskriminazio mota) eta arrazoia da ez duela errespetatzen.
(DBHko 1. mailako ikaslea)

⁵ Bi aipu horiek irakasleei egindako honako galderatik atera dira: «Ikasleek irakasleen aldetik nolabaiteko diskriminazioa jasan dutela uste baduzu, azaldu, mesedez, zer diskriminazio mota den eta zure ustez zein den edo izan den arrazoia».

Entzutearen Testeko hainbat galderatan ikusten dugu **joera desberdinak dituztela nesken eta mutilen erantzunek:**

- Pertsonen artean entzute aktiborik zergatik ez dagoen galdetuta, neskek mutilek baino gehiago aipatzen dituzte beldurrak (jendaurrean hitz egiteko lotsa izan ohi da aipu nagusietako bat).
- «Zure ustez, gizonezko ikaskide batzuek gutxiago hartzen dituzte kontuan edo gutxiago entzuten dituzte neskak mutilak baino?» galderari dagokionez, aldea dago mutilek eta neskek pentsatzen dutenaren artean. Neskek baietz diote, gutxiago entzuten dituztela, baina mutilen gehiengoak ezetz pentsatzen du⁶.
- «Pertsona batek zer esan nahi duen oso ondo ulertzen ez duzunean, galderak egiten dituzu, ulertu arte» baieztapenaren aurrean, honakoa da joera: neskek gehiagotan egiten dituzte besteei ulertzeko galderak, eta mutilek, berriz, galderarik ez egiteko ohitura handiagoa dute⁷.
- «Zure familiarekin dituzun ideiez, sentimenduez edo arazoez hitz egin ahal izateko askatasuna eta konfiantza dituzu» baieztapenean, beti konfiantza sentitzen duten mutilen ehuneko handiagoa ikusten da, nesken kasuan ez bezala, konfiantza gutxiago erakusten baitute.

Entzutearen Testetako hainbat puntutan azaleratzen dira **genero-desberdintasunekin** zerikusia duten gaiak, eta, aldi berean, berdintasuna da behin eta berriz errepikatzen den gaietako bat, baita ikasleen parte-hartzea hobetzeko landu beharreko **proposamen zehatza** ere. Adibidez:

- Eragiten dieten gaietan gehiago inplikatu ahal izateko zer egin galderari emandako erantzunen artean, neska-mutilen % 4k uste dute gakoa berdintasuna egotea dela.

Mutilek ez pentsatzea neskak baino hobeak direla. (LHko 6. mailako ikaslea)

Mutilek neskei ustez mutilenak diren gauzetan jolasten uztea, eta alderantziz. (LHko 6. mailako ikaslea)

- Ikasleen arteko harremanak nola hobetu daitezkeen galdetzean, berdintasunaren ideia ere aipatzen da zenbait kasutan. Adibidez:

Berdintasuna egotea. (LHko 5. mailako ikaslea)

Mutilek neskak gehiago baloratzea. Mutilek neskei entzutea edo alderantziz. (LHko 5. mailako ikaslea)

⁶ Honako joera ikus daiteke: «beti» eta «askotan» erantzun dutenen artean, handiagoa da nesken ehunekoa. Gainera, «batzuetan» eta «inoiz ez» erantzunen artean, gora egiten du mutilen ehunekoak. Bereziki bigarren kasuan. «Inoiz ez» erantzuten duten ikasleen artean, gehiago dira mutilak neskak baino.

⁷ Zehazki, ikusten da, ulertzeko «beti» edo «askotan» galderak egiten dituztela erantzun dutenen artean, nesken ehunekoa handiagoa dela; «batzuetan» erantzun dutenen artean, berriz, berdindu egiten da mutilen eta nesken ehunekoa, eta galderak «inoiz ez» dituztela egiten dioten artean, handiagoa da mutilen ehunekoa neskena baino.

Nolakoa da haurrek eta nerabeek parte hartzeko eta proposamenak aurrera eramateko duten gaitasuna?

«Ikasleei gehiago entzutea eta beren argudioak edo ekintzak ez baliogabetzea beren adinagatik bakarrik.» (DBHko 1. mailako ikaslea)

Ikasleei galdetzean ea uste duten entzunak izateko uneak dituztela eta haien ideiak praktikan jartzerako orduan kontuan hartzen direla, adierazten dute **ez dutela uste entzuten dietenik, ezta ikastetxean eraginik izango dutenik ere:**


- «Zure ikastetxean ikasleei entzuteko lekuak eta uneak daude (batzarrak, bilerak, topaketak, entzuteko pertsonak edo taldeak eta abar)» adierazpenari emandako erantzunen arabera, **ikasle gehienei ez zaie iruditzen haiei**

entzuteko tarterik edo unerik dagoenik.

% 15ek uste dute inoiz ez dela izaten tarte hori, eta % 36k, berriz, batzuetan bakarrik izaten dela. Beraz, **ikasleen % 50ek baino gehiagok hautematen dute entzunak izateko aukerarik ez dutela, edo aukera gutxi dutela.**

- Emaitza horiek lotura izan dezakete ikasleek beren ideiak abian jartzeko orduan eraginik ez dutela uste izatearekin. Entzuteko unerik ez badago, are zailagoa da haien proposamenak

11. grafikoa: Zure ikastetxean abian jarri al dira ikasleen ideietan oinarritutako ekintzak?



Iturria: geuk egina Entzutearen Testeko galderaren emaitzetan oinarrituta.

kontuan hartzea eta ekiteko orduan eragina izatea. «Zure ikastetxean abian jarri al dira ikasleen ideietan oinarritutako ekintzak?» galderari dagokionez,

ikasleen erdiak baino gehiagok uste dute ia ez dela ekintzarik abian jarri ikastetxean beren ideietan oinarrituta:

ikasleen % 15ek uste dute inoiz ezetz. Ia ikasleen erdiak (% 48) uste dute batzuetan bakarrik egin izan dela. Hala ere, % 23k uste dute askotan egin izan dela, eta % 7k beti. Ildo horretan, aproposa izango litzateke ikastetxeen ohiko kulturaren eta praktiketan txertatzea ikasleen eragiteko eta ideiak praktikan jartzeko gaitasuna, ikastetxeko bizikidetzaren eta ikasleen parte-hartzea hobetzeko.

- Deigarria da irakasleei galdera bera egitean (ea ikastetxean irakasleei entzuteko lekurik eta unerik badagoen), askoz gutxiagok erantzun dutela «inoiz ez» (% 5ek, ikasleen % 15en aldean). Halaber, irakasleei Entzutearen Testean galdetu zaie ea ikastetxean proiektu parte-hartzaileak eta eraldatzaileak abian jartzeko taldean lan egiteko interesa dagoen, eta irakasle gehienek adierazi dute baietz, interes hori badagoela (% 39k beti eta % 35ek askotan), eta deigarria da ikasleek aurkakoa hautematen dutela.

Zer proposatzen dute neska-mutilek eragiten dieten gaietan hobeto inplikatzeko?

Entzutearen Testaren emaitzek agerian uzten dute ikasleen % 24k bakarrik uste dutela neska-mutilek interesa dutela beren ingurune hurbila hobetzeko ekintzetan parte hartzeko⁸. Interes txiki hori azal lezake inplikazioa hobetzeko proposamenak eskatu dizkiegunean aipatu duten ideia batek. Hain zuzen, adierazten dute gehiago inplikatzeko proposamenak egiteko interesa gutxitzen zaiela helduek ez dituztelako aintzat hartzen eta horretara ohituta daudelako.

*Gaur egun, gutako askok ez dugu proposamen askorik, txikitan ez gaituztelako aintzat hartzen eta horretara ohituta gaudelako.
(Batxilergoko 1. mailako ikaslea)*

Hala eta guztiz ere, neska-mutilek, beren **eguneroko bizitzan eragina duten kontuak hobetzeko proposamenei buruz galdetzean**, ideia ugari azaldu dituzte. Horien artean, gehienak gai bati lotuak daude: **arretaz entzuteko denbora, espazioa edo jarduerak izatea** (ikasle guztien % 38). Bigarrenik, aipatzen dute beharrezkoa dela eragiten dieten kontuetan parte-hartze hori helduek sustatzea eta horretan laguntzea (% 20)⁹. Beraz, ideiak bat datoz neska-mutilek entzunak izateko unerik ezari eta eragiteko gaitasun txikiari buruz egiten duten diagnostikoarekin.

⁸ «Zure ustez, zure adineko neska-mutilek interesa dute auzoa, herria edo hiria hobetzeko proposamenetan parte hartzeko eta inplikatzeko» baieztapenari «beti» edo «askotan» erantzun dioten ikasleen ehunekoa.

⁹ «Mesedez, pentsa itzazu proposamen batzuk, neska-mutilek gehiago kontuan har ditzaten eta eguneroko bizitzan eragiten dieten kontuak hobetzen inplika daitezkeen» eskaeraren harira jasotako proposamenak.

Eskolan tarte bat izatea guri buruz hitz egiteko, besteei entzuten ikasteko eta elkarri laguntzeko. (LHko 6. mailako ikaslea)

Entzuteko tarteak izateari lotutako proposamen horren baitan, neska-mutilek beharrezkotzat jotzen dute ikastetxean entzungo dien **erreferentziazko pertsona bat izatea, zeinak jarrera abegikorra** eta lagungarria izango duen.

Norbait edo zerbait egotea baten batek arazoren bat izango balu barrua hustu ahal izateko, gertatutakoa kontatuta edo gutun soil bat idatzita (anonimoa ez izatea, bestela ezin baita arazoa konpondu), eta entzuna izan eta ikastetxearen laguntza jaso ahal izatea, ahal den neurrian.

(DBHko 4. mailako ikaslea)

Proposamen horrek lotura du ikasleek aipatutako beste gai batekin: **haiek parte hartu ahal izateko, helduen laguntzaren eta inplikazioaren beharra**, eta adin txikikoagoa izateagatik ez diskriminatzea eta beren iritzia kontuan hartzea.

Nire ustez, estereotipoak alde batera uztea da garrantzitsuena, helduek asko epaitzen baitituzte gazteak beren ideiegatik edo pentsatzeko moduagatik.

(DBHko 1. mailako ikaslea)

Laguntza eskatzen dizutenean entzutea edo gaizki ikusten dituzunean galdetzea. Haien lekuan jartzea eta arazoak ez txikiagotzea, txikiak iruditzen arren.

(DBHko 4. mailako ikaslea)

Diskriminazio gutxiago egotea eta hitz egiteko txanda gehiago uztea; badirudi irakasleek beti izan behar dutela arrazoia. (LHko 6. mailako ikaslea)

Erantzun horien artean, proposamen batzuek lotura dute Entzutearen Testetan zehar ikusitako nozio batekin: pertsonen arteko **konfiantza** indartzearen garrantzia belaunaldien arteko harremanak hobetzeko.

Irakasleek ikasleen jarrerekiko interesa erakustea, ikus dezagun, notak edo zenbat ikasten dugun ez ezik, nola sentitzen garen ere axola zaiela.

(DBHko 4. mailako ikaslea)

Helduen inplikazioaren, laguntzaren eta ikasleak kontuan hartzeko jarrera irekia izatearen harira, ikasleen % 16k adierazi dute **erabakiak hartzeko eta parte hartzeko benetako espazioak behar direla, non beren ideiak kontuan hartuko diren.**

Hileroko errutina bati jarraituz ikasleek proposatutako ideiak biltzea eta irakasleekin praktikan jartzea.

(DBHko 3. mailako ikaslea)

Azkenik, gutxi batzuek (guztizkoaren % 4) **gai zehatzak** lantzeko beharra adierazten dute (hala nola kutsadura eta bestelako **ingurumen-gaiak**, eskola-jazarpena...), baita **genero-berdintasuna** sustatzeko beharra ere.

arretaz entzuteko tarreak

helduen inplikazioa

parte-hartzea ingurumena
berdintasuna



Entzutearen Testetarik harago



Entzutearen Testak egin ondoren, **Entzutearen Klubetako** neska-mutilek beren ikastetxeetako entzutearen eta bizikidetzaren egoeraren inguruko diagnostiko bat egin dute. Horietako batzuk birtualki bildu dira beren ideiak eta proposamenak bateratzeko eta ikastetxe ezberdinetako neska-mutilekin eztabaidatzeko. Entzutearen Kluben **topaketa birtual** hori 2022ko ekainean egin zen. Esperientzia aberasgarria izan zen, eta neska-mutilek aukera izan zuten elkar ikusi, elkarri entzun eta entzutearen egoerari buruzko hausnarketa- eta lan-prozesua nolakoa izan zen partekatzeke. Halaber, testuinguru geografiko ezberdinetako hezkuntza-komunitate osotik lortutako emaitzak alderatu ahal izan zituzten, baita izan zitzaizkieten interpretazio ezberdinak ere.

Zer nabarmendu dute Entzutearen Klubek Entzutearen Testen ondoriozko hausnarketa-prozesuan?

Neska-mutilek adierazi zuten garrantzitsua dela ikasturte ezberdinetako ikasleen artean **konfiantza sustatzea** gatazkak eta indarkeria saihesteko. Horretarako, adibidez, **maila ezberdinetako ikasleen artean jarduera** gehiago egitea proposatu zuten, eta hainbat onura ikusi zituzten: trebetasun sozialak sustatzea, adin ezberdinetako ikasleen arteko harremanak indartzea, bizikidetzaren hobetzea...

Neska-mutil batzuek konfiantzarik eza hori adierazi ziguten ekainean egindako topaketa birtualean. **Entzuten dituztela sentitzea** gustatuko litzaiekeela esan zuten, baita



entzutean familiek egin beharko luketena zer den ere: enpatiatik babesa eman eta ulertu, errieta egin beharrean. Konfiantza txikitatik landu behar dela azpimarratu zuten, gertutasun-ingurune bat sortzeko. Hortik proposamen bat sortu zen: **egunean entzuteko 30 minutuko** tarte izatea, beren ideiak eta sentimenduak adierazteko eta helduengan konfiantza handiagoa izateko;


Proposa daiteke egunean behin ordu erditxo bat izatea gure arazoei buruz hitz egiteko, gurasoek zein seme-alabek komunikatzeko eta batzuek besteei entzuteko, seme-alabek gurasoei beren arazoak kontatzeko eta alderantziz.

Gutxienez ordu erdi batez gurasoekin hitz egiteko eta arazoak partekatzeko proposamen interesgarri hori honako gogoeta honekin lotu zen: komunikaziorako tarte horrek ulermen- eta enpatia-jarrera bat izan behar ditu oinarrian, neska-mutilek beldurrik gabe hitz egin ahal izateko eragiten dieten gaien inguruan. Halaber, **bi noranzkoko** komunikazioa izan behar da, ez haurrengandik helduenganakoa bakarrik, baita alderantziz ere, **elkarrenganako konfiantza** eraiki ahal izateko.

Halaber, Entzutearen Testek eragindako hausnarketa-prozesuan zehar neska-mutilek adierazi duten gauzetako bat da oso garrantzitsua dela jasaten ari diren **indarkeria-adierazpenak identifikatzen jakitea**; izan ere, uste dute eskola-jazarpena jasaten ari diren ez jakiteak ez duela salatzea eragozten.

Entzutearen Testek eragindako hausnarketa-prozesuan zehar, neska-mutilek, eta bereziki neskek, nabarmendu dute uste dutela mutilek galdera gutxiago egiteko joera dutela eta gainerakoak ulertzeko zailtasun gehiago izan ditzaketela, neskak neurri handiagoan saiatzen direlako gainerako pertsonak ulertzen. Mutilek, berriz, joera txikiagoa dute galderak egiteko eta sentimenduak adierazteko, txikitatik mutilei helarazten zaizkien ideiei lotutako estereotipo eta genero-rol batzuegatik, hala nola indartsuak izan behar dutela eta ezin dutela negarrik egin. Illo horretan, zenbait neska-mutilek ekaineko topaketa birtualean nabarmendu zuten garrantzitsua dela genero-ikuspegi batetik hausnartzea eta ondorioztatzea Entzutearen Testei buruz.

Ondorioak eta hausnarketak



Arretaz Entzun 2022 programaren baitan 11 eta 17 urte bitarteko neska-mutilek egindako Entzutearen Testaren emaitzek iradokitzen dute ez dagoela pertsonen arteko entzute aktiborik, gainerakoek esan behar dutenari dagokionez pertsonen **interes faltak** eragindako komunikazio-arazoengatik eta jarrera **berekoia** eta enpatia gutxikoa dugulako.

Aipatu behar da Entzutearen Testetan parte hartu duten neska-mutilek adierazi dutela uste dutela **helduek ez diegula entzuten eta ez ditugula nahikoa kontuan hartzen**. Alegia, gazteagoak direnez, beren ideiak eta arazoak gutxiagotzen ditugula uste dute, baina, oro har, haiek iritziak eta aurrera eraman nahiko lituzketen proposamenak dituztela eta asko dutela irakasteko. Hau da, neska-mutilek zalantzan jartzen dituzte helduek izan ditzaketen ideia eta jarrera helduzentristak.

Batez ere, ikastetxean, neska-mutilek uste dute ez dagoela haiei entzuteko une nahikorik eta, aldi berean, beren proposamenak, oro har, ez direla praktikan jartzen ikastetxean. Era berean, uste dute pertsona **helduekiko konfiantza falta handia dutela**. Parte-hartze prozesuetan oso garrantzitsua da pertsonen arteko konfiantza. Gizartearen babesa eta aintzatespena izatearen sentimendua; erabakiak hartzeko orduan parte hartzeko baimena izatea eta horretarako mugarik ez izatea heldutasun demokratikoaren adierazgarri da, eta ez da justifikatzen gaitasunik ezaren edo mendekotasunaren argudioekin haurren kasuan (Moran-Ellis eta Heinz Sünker, 2013).

Gai horien harira, kontzientziazioa eta/edo ikerketa susta dezaketen hainbat galdera sortzen dira, adibidez: nola esplizitatzen da konfiantza hori?, zergatik ez dute hautematen

haurrek eta nerabeek, familieek eta irakasleek eskaintzen dutela uste badute?, nola entzun diezaiekegu gehiago eta hobeto haurrei eta nerabeei, konfiantza nola senti dezaketen partekatzeko? Gainera, **gehiago dira konfiantza hori eskuratzeko zailtasuna sentitzen duten neskak mutilak baino**. Ildo horretan, beste galdera batzuk egin daitezke, hala nola: ezberdintasun hori izan daiteke familieek mutilei eta neskei ezberdin entzuten dietelako?, eta, hala bada, zer beste modutara entzuten diete familieek neskei konfiantza gutxiago senti dezaten? Gai hauekin lotuta, azpimarratzekoa da, halaber, **neskek adierazten dutela, mutilek baino neurri handiagoan, entzute aktiborik ez izateko arrazoi nagusietako bat beldurra dela** (jendearen aurrean hitz egiteko lotsa izan ohi da aipamen nagusietako bat). Zer lotura izan dezake beldur horrek genero-estereotipo eta -rol tradizionalekin? Izan ere, neskak eta emakumeak espazio publikotik kanpo kokatzen dituzte, beren ahotsa erakusteko gaitasun txikiagoa egotzen diete eta beren ideien balioa txikiagotzen dute. Era berean, galdera horiek lehen planteatutakoarekin lot ditzakegu, hau da, helduek ezberdin entzutea mutilei eta neskei.

Bestalde, ikasleek uste dute zaharragoak diren neska-mutilak gazteagoak baino gehiago sentitzen direla, eta, aldi berean, gehienek uste dute taldean lan egitean gainerako pertsonak baloratzen ikasten dutela. Dena den, emaitza kezkagarria da honakoa: ikasleen % 40k jasan dute beren ikastetxeetan noizbait **diskriminazioa**. Etorkizuneko diagnostikoetan sakonago aztertu beharreko gai garrantzitsua eta interesgarria izan daiteke.

Beste alde batetik, **zein proposamen eta gomendio egiten dituzte neska-mutilek entzuterik eta konfiantzarik gabeko egoerari aurre egiteko?** Aldi berean, Entzutearen Testen emaitza garrantzitsuak dira horiek. **Familiekin**

eta ikastetxean hitz egiteko eta entzuteko uneak sustatzearen garrantzia nabarmentzen dute. Esate baterako, egunean gutxienez 30 minutu izatea helduekin entzute aktiboa eta enpatikoa izateko, mintzatzeko berariazko irakasgai bat izatea, mintzatzeko eta gatazkak konpontzeko taldekako jarduera gehiago egitea, talde-lanari tarte handiagoa ematea, berdinen arteko konfiantza indartzeko...

Neska-mutilek azpimarratzen dute, halaber, **abegikortasuna, enpatia, laguntza eta haurrak eta nerabeak benetan kontuan hartzea eragingo duten trebetasunak sustatu behar dituztela helduek**. Izan ere, **horrela haurrek eta nerabeek haiengan konfiantza** gehiago izango dute eta eragiten dieten gaitetan gehiago inplikatu dira. Azken proposamen horren harira, aipagarria da irakasleen eta ikasleen pertzepzioaren arteko aldea, honakoari dagokionez: benetan ikasleei entzuteko uneak dauden eta haien ideiak ikastetxean ekintzak abian jartzeko balio duten. Neska-mutilek irakasleek baino askoz pertzepzio txarragoa dute ildo horretan. Ezberdintasun horretaz ohartzean, honako galdera hau sortzen da: **irakasleak haurren eta nerabeen parte-hartzearen inguruan** prestatzeak lagundu dezake ikasleek eta irakasleek adierazten dituzten iritzietan dagoen alde hori murrizten? Proposamen hori familiekin ere azaldu zuten Entzutearen Testen hainbat erantzunetan. Haurren parte-hartzea bultzatzen duten belaunaldien arteko elkarrizketak sustatzeko helduak prestatzeak, oro har, abantaila eta onura ugari ditu guztientzat. Horrela, pertsona helduek zein haurrek enpatia-gaitasuna areagotuko lukete eraldaketa- eta aldaketa-prozesuak sustatzeko. Elkarrizketak berdintasunean izaten ikasteak, beharrian, alternatibez eta konponbideak aurkitzeko egin daitekeenaz hitz egiteak, **guztien ahalduntzea** bultzatzen du eta jasangarritasuna eta eragina gehitzen

ditu elkarrizketa hori praktikan jartzen duten erakundeetan, dela eskoletan, dela administrazio publikoetan, etab. (Imanian eta Thomas, 2020). Era berean, haurren parte-hartzeari buruzko literatura lagungarria izan da **aktibismoak duen garrantzia** erakusteko, neska-mutilek botere-desberdintasunei aurre egiteko bideetako bat baita, helduzentrismoaren kaltetan (Tisdal, 2021). Ilido horretan, Entzutearen Testaren emaitzak oinarri hartuta, mobilizazio-kanpainen diseinua sustatuko du Educok, Gazte aktibistentzako gidaren (Educo, 2022) babesarekin, Arretaz Entzun kanpainen parte hartzen duten ikastetxeetan. Helburua: **kontsultatik erabakiak hartzera eta komunitatearen aldeko ekintzak antolatzeke erantzukizuna hartzera igarotzea.**

Halaber, helduek (batez ere ikastetxean) enpatiari eta tratu onari lotutako gaitasunak izatearen ideari lotuta, neska-mutilek beharrezkoa ikusten zuten ikastetxean erreferentziazko pertsona bat izatea, **haiei entzuteko eta haien arazoak konpontzen laguntzeko**. Eskumen horiek bat datoz haurrak eta nerabeak **indarkeriaren aurrean osorik babesteko** ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan (IV. kapitulu) ongizatearen eta babesaren koordinatzaile izateko planteatutako eginkizunekin. Beraz, pertsona horrek garatu beharko lituzke gaitasun horiek. Aipamenetako batek ezin hobeto laburbiltzen ditu pertsona horrek izan behar dituen ezaugarriak: «Nor bait edo zerbait egotea baten batek arazoren bat izango balu barrua hustu ahal izateko, gertatutakoa konstatuta edo gutun soil bat idatzita (anonimoa ez izatea, bestela ezin baita arazoa konpondu), eta entzuna izan eta ikastetxearen laguntza jaso ahal izatea, ahal den neurrian». Hori horrela, badirudi ikasleek hautemandako behar horrek indartu egiten duela lege horretan eginkizun hori ikastetxe guztietan garatzeari buruz azaldutako **legezko betebeharra**. Neska-mutilen proposamenek

adierazten dute egokia dela ikastetxean erreferentziazko pertsona hori izatea, haur eta nerabeentzako ahalik eta ongizate handiena bermatzen duten neurriak modu formalizatuan ezartzeko, prestakuntza-planak sustatzeko, indarkeria antzemateko eta ikasleei tratu ona emateko, eta helduen eta ikasleen arteko konfiantza indartzeko (Entzutearen Testetan antzeman zen behar hori). Horrela, **pertsona horrek ziurta dezake neska-mutilek topaketa birtualean egiten zuten proposamenaren eraginkortasuna, hots, entzute aktiborako egunean gutxienez ordu erdi izateko proposamenarena**. Hain zuzen, entzuteko tarte horietatik eratorritako ondorioak sistematiza ditzake pertsona horrek, eta neurri horiek duten eragina azter dezake indarkeria murrizteko eta ikastetxeetan babes-inguruneak sortzen laguntzeko orduan. Era berean, **entzute aktiboa sustatzeko metodologia parte-hartzaileak lagundu egiten du ongizatearen koordinatzailearen zereginak behar bezala betetzen, haurren eskubideetan espezializatutako erakundeek gomendatzen duten bezala** (Educo, 2022, eta Unicef, 2021). Educon uste dugu pertsona hori izatea ezinbestekoa dela hainbat arrazoiengatik: gure gizarteko arazo larri bat ikusarazten duelako, eta ikastetxeek arazo hori ekiditeko duten garrantzia azpimarratzen duelako. Berariaz aitortzen da kalitatezko hezkuntza bermatzeko oinarritzkoa dela hezkuntza-testuinguruan haurren eta nerabeen babesa eta ongizatea lantzea. Gainera, Espainiako legediaren hurbilpena adierazten du autoerregulazio-ekimenak defendatzen dituzten planteamenduetara, hala nola Keeping Children Safe (KCS) erakundeak bere estandarren bidez defendatzen dituenak, edo UNE elkartearen honako espezifikazioak defendatzen dituenak: «Indarkeriaren aurkako babesa kudeatzeko sistema adingabeekin eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsonekin lan egiten duten gizarte-ekintzako, hezkuntzako,

kiroleko, aisialdiko edo denbora libreko erakundeetan». Halaber, oinarrizko pieza da ikastetxeetan tratu ona sustatzen duten babes-inguruneak eraikitzeko (Educo, 2022).

Entzutearen Testaren emaitzetan beste elementu batzuk agertzen dira, neurri txikiagoan izan arren. Elementu horiek eragiten dituzten galderek aukera ematen dute neska-mutilek garrantzitsutzat jotzen dituzten gizarte-arazo jakin batzuen inguruan sentibilizatzeko eta kontzientziatzeko. Nabarmentzekoa da, batetik, mutilen eta nesken artean zenbait kasutan dagoen ezberdintasunari buruz egiten duten hausnarketa (adibidez, enpatiari dagokionez eta mutilek neskei eta mutilei entzuteko moduari dagokienez) eta, bestetik, bien arteko **berdintasuna** hobetzeko egiten duten proposamena, neskak gehiago inplikatu ahal izateko eragiten dieten gaitan. Ideia hori bat dator haurren parte-hartzeari buruzko literaturaren zati handi batetik ondorioztatzen

denarekin; hots, gaur egungo erronka bat dela gazteen talde espezifikoak haiei eragiten dieten gaitan parte hartzetik baztertuta egotearen – esate baterako, genero-arrazoiak tarteko– aurka egitea (Tisdal, 2021). Aipatzekoa da, halaber, ikastetxearen gertuko inguruan jarduerak egiteko aukera, bereziki **ingurumen-gaiekin** lotutakoak (kutsadura, birziklapena, etab.).

Horrez gain, interesgarria da azpimarratzea seme-alaben eta familien artean **entzute aktiborik ez izateko arrazoi sendotzat dituztela teknologia berriak familiek**. Horren harira, galdera interesgarriak egin ditzakegu, neska-mutilen eta helduen artean ulermen- eta bizikidetza-harreman hobeak sustatzen jarraitzeko. Entzute aktiboa zailtzen duten distrakzio-iturri gisa, zergatik dira askoz adierazgarriagoak teknologia berriak familientzat etxe berean bizi diren neska-mutilentzat baino? Familien aldean, nola bizi dute teknologia berrien erabilera hurrek eta



nerabeek, eta zer esanahi ezberdin izan dezakete haientzat? Adibidez, 13 herrialdetan COVID-19aren pandemian egindako ikerketa batek agerian utzi zuen haurrek eta nerabeek iritzi ona zutela sare sozialen inguruan. Informazioa eskuratzeko eta bizitza publikoarekin harremanetan egoteko tresna gisa ikustez gain, beren iritzia emateko eta eragiten dieten gaitan eragiteko plataforma gisa ere ikusten zituzten (Tisdal, 2021).

Txosten honetan jorratutako gaiek bide ematen digute **jakiteko, hausnartzeko haurrei entzuten diegun moduz, prestatzeko eta zuzenean ezagutzeko hezkuntza-testuinguruetako entzute aktiboa hobetzeko proposamenak eta metodologiak**. Proposatzen dugu haien ideiak ezagutzeko ez ezik, beste ekintza batzuk erraztuko dituen prozesu bat abian jartzeko ere baliatzea, Lundyk (2007) proposatzen zuen moduan: **espazioa, ahotsa, audientzia eta eragina**. Beharrezkoa da espazio seguruak eta inklusiboak sustatzea; bideak erraztea haurrek eta nerabeek beren ideiak adierazteko; helduok beren ikuspuntuak modu aktiboan entzungo ditugula eta erabakietan eragiteko aukera emango diegula bermatzea. Haurren ideiak eta helduenak desberdinak badira, beharrezkoa izango da ikerketa gehiago egitea eta **harreman ona lantzen jarraitzea, haurrekin denbora pasatuz, mintzatuz eta konfiantza sustatzen duten elementu ludikoak txertatuz** (Kennan *et al.*, 2019) eta haien interesetan eta eguneroko jardueretan oinarrituta (kirola, aisia, kultura-jarduerak, etab.).

Mundu osoko neska-mutilek uste dute bizitza zibikoan eta politikoan parte hartzeko duten gaitasuna mugatzen duela kultura-arrakalak, zeinak oinarri dituen helduen paternalismoa eta helduzentrismoa (Freedson, 2021). Haurren gaitasunak aintzat hartzeko ahaleginak egiteko esaten digute Shierrek (2001) eta beste

egile batzuek. Horretarako, **beharrezkoak dira borondatea eta irekitasuna (egin nahi izatea), ezagutzak eta bitartekoak (tresnak ezagutzea eta edukitzea) eta aukerak eta eginkizunak (egin ahal izatea)**. Gillett-Swanen eta Sargeanten (2020) entzute inklusiborako proposamenak (gaitasuna-autonomia-boterea-agentzia) honako hau egitera animatzen gaitu: **haurren gaitasunak aitortzera eta garatzera, bai banaka, bai taldean, haien adina, esperientzia eta heldutasuna kontuan hartuta; parte-hartze prozesuetan haien autonomia sustatzera, askatasuna eta helduenganako konfiantza bermatuz; haiei boterea ematera, praktika autoritarioak eta parte hartzeko mugak alde batera utziz, bai eta haiek errespetatzera ere informazio guztia eskura izanda parte hartu nahi ez badute**. Aurreko alderdiak behar bezala garatu eta uztartu ostean (gaitasunak, autonomia eta boterea), **agentzia-maila handiagoa lortuko dugu erabakiak hartzeko eta ingurua eraldatzeko ekintzak aurrera eramateko**. Horrez gain, beren autonomia sustatzea lagungarria da arazoak konpontzen, pentsamendu kritikoa garatzen eta beren burua babesten ikasteko. Proposamen eta ideia horiekin guztiekin, baditugu dagoeneko elementuak berdintasunerako eta haurren ongizaterako eskubideak betetzeko bidea egiteko.

Laburbilduz, entzute aktiboa da haurrenganako tratu onaren eta ongizatearen kultura sustatzeko osagai nagusietako bat. Sarreran esan dugun bezala, honako honetan laguntzen du: autoestimua indartzen, komunikazioan, ikaskuntzan, harreman onak eraikitzen, berdintasuna eta botere-banaketa bermatzen, erabakiak hartzen, talde-lanean, bizikidetza demokratikoa izaten eta, beraz, giza eskubideak eta haurren eskubideak betetzen. Horrez gain, **entzute aktiboa sustatzeko familien eta irakasle-taldeen lanarekin eta inplikazioarekin**

batera, beharrezkoa da administrazioek ere entzute aktiboa lantzea eta haurren eskubideak errespetatzea. Horretarako, haurrekin hitz egiteko hainbat bide erabil ditzakete. Esaterako, haurren parte-hartzea sustatzeko topaketa formalak, hala nola haurrei buruzko udal-kontseiluak edo -batzordeak, baina baita bi noranzkoko bideak ere, zeinak haientzat ezagunak eta eguneroko inguruneetatik erraz iristeko modukoak diren. Adibidez, kontsulta publikoak, postontziak, ikastetxeen, kultura-, aisialdi- edo osasun-etxeen lankidetzarekin egindako *ad hoc* proiektuak eta abar. Herritartasun-balioak garatzeko lagungarria da haurrek entzute hori sentitzea, kontuan hartzea eta prozesuetan parte-hartu eta inplikatzeari (Cámara et al., 2013). **Herritartasun-balio horiek oinarri dute errespetua, bizikidetzaren eta politikoki aktibo, ikasiago eta zorrotzago izateko jarrera kritikoa, eta aurrera egitea eta sistema demokratikoa sendotzea eragingo dute.** Hala ere, ildo horretan, beharrezkoa da parte-hartze prozesu horiek ezberdintasunak ez indartzea, gizartearen baztertuta dauden taldeen ahotsik ez badute (Augsberger, 2018; Fielding, 2011).

Educon uste dugu ikastetxeak leku aproposak direla honako ezaugarriak biltzen dituen **hezkuntza errotik** garatzeko: **parte hartzeko metodologiak** eta **entzute aktiboan berdintasun-balioak** sustatzea haurren eta nerabeen ongizaterako, eta familien, komunitate-ingurunearen, administrazio publikoen eta, oro har, gizartearen inplikazioa izatea.

Haurrenganako entzutea asko hobetuko litzateke entzuten ari den pertsonarekin lasai mintzatu ahalko bagina, gure ideia baztertuko duen beldur izan gabe. (DBHko 4. mailako ikaslea)

Helduek gu gehiago aintzat hartzea. (DBHko 3. mailako ikaslea)

Haurrak haur izateagatik ez baztertzea. (LHko 6. mailako ikaslea)

Pertsona batzuek genero-berdintasuna izan behar dute. (LHko 5. mailako ikaslea)

Gomendioak



NESKA-MUTILENTZAT

BESTEEDIKO TRATU ONEKO JARRERAK LANDU: berdintasuna sustatu, aurreiritziak baztertu, entzuteari denbora eskaini, segurtasuna eman...

ZUEN ESKUBIDEAK ALDARRIKATU: lehendabizi horiek ezagutuz, interesa erakutsiz, ideiak partekatuz, konpromisoak hartuz, zuen gaitasunak erakutsiz, borrokatuz eta taldean lan eginez...

PRESTAKUNTZA JASO: parte hartzeko, hezkuntza digitalerako, eskola-jazarpena detektatzeko, hezkuntza emozionalerako, balioak (berdintasuna, aniztasuna, etab.) eta gizarte-trebetasunak garatzeko.

FAMILIENTZAT

BESTEEDIKO TRATU ONEKO JARRERAK LANDU: berdintasuna sustatu, aurreiritziak baztertu, entzuteari denbora eskaini, segurtasuna eman, helduismoa ekidin...

HELDUEN ETA HAURREN ETA NERABEEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA SUSTATU: autonomia eta parte-hartzea sustatzeko tarteak eta espazioak bilatu, eta egunaren tarte bat eskaini entzuteari.

NESKA-MUTILENTZAKO KONFIANTZA-, SEGURTASUN- ETA HURBILTASUN-EGOERAK SUSTATU: etxean eta ikastetxean, haiengana hurbildu aurretik epaiketak alde batera utziz.

IKUSPEGI HELDUZENTRISTA ZALANTZAN JARRI: adibidez, haien sentimenduek eta arazoek garrantzi txikiagoa duten eta helduek beti arrazoia duten ideiei aurre egin.

PRESTAKUNTZA JASO: parte hartzeko, hezkuntza digitalerako, eskola-jazarpena detektatzeko, hezkuntza emozionalerako, balioak (berdintasuna, aniztasuna, etab.) eta gizarte-trebetasunak garatzeko.

IRAKASLEENTZAT

BESTEEEKIKO TRATU ONEKO JARRERAK LANDU: berdintasuna sustatu, aurreiritziak baztertu, entzuteari denbora eskaini, segurtasuna eman, helduismoa ekidin...

IKASGELAN HEZKUNTZA-METODOLOGIAK GARATU: metodologia kooperatiboak, gai interesgarriei buruzko eztabaidak, irakaskuntza-ikaskuntza parte-hartzaileagoak eta neska-mutilen proposamenak aintzat hartzen dituztenak.

NESKA-MUTILENTZAKO KONFIANTZA-, SEGURTASUN- ETA HURBILTASUN-EGOERAK SUSTATU: ikastetxean, haiengana hurbildu aurretik epaiketak alde batera utziz.

IKUSPEGI HELDUZENTRISTA ZALANTZAN JARRI: adibidez, haien sentimenduek eta arazoek garrantzi txikiagoa duten eta helduek beti arrazoia duten ideari aurre egin.

PRESTAKUNTZA JASO: parte hartzeko, hezkuntza digitalerako, eskola-jazarpena detektatzeko, hezkuntza emozionalerako, balioak (berdintasuna, aniztasuna, etab.) eta gizarte-trebetasunak garatzeko, ikastetxean diskriminazio-egoerak identifikatzeko.

PUBLIKO OROKORRARENTZAT

IKUSPEGI HELDUZENTRISTA ZALANTZAN JARRI: adibidez, aurreko gomendioekin eta proposamenekin lotutako ekintzak gauzatzean. Laburbilduz, honako hauek dira helburuak: haurrekin entzute aktiboa egitea, beharrezkoak diren espazioak eta denborak sustatuz; haurrengandik ikasteko prest egotea; maitasunez, errespetuz eta pazientziaz babesa ematea; umorearen eta jarduera ludikoen bidez harremantzeko modu berriak aztertzeak jakin-mina izatea; paternalismoa eta aurreiritziz betetako begirada eta ekintza deseraikitzea; etengabe heziak izaten ari diren pertsona gisa ez tratatzea, baizik eta kalitatezko hezkuntzarako eskubidea duten pertsona gisa, zeinak eskubideak dituzten eta beren bizitzak eta ingurunea aldatzeko prozesuak abian jartzeko agentzia duten.

ERABAKIAK HARTZEN DITUZTENENTZAT

(ZUZENDARITZA-TALDEAK, AGINTARIAK, POLITIKARIAK...)

BALIABIDEAK ETA EGITURAK EMAN: ongizatearen koordinatzailearen lana indartzeko, ikastetxean pertsona horren prestakuntza eta aintzatespena sustatzeko, neska-mutilentzako erreferentzia bihurtzeko denbora eta espazioa izan ditzan, haiei konfiantza, segurtasuna eta hurbiltasuna eskainiz. Erreferentziatzeko pertsona horrek parte-hartzea eta eztabaida sustatzeko ardura izango du, gatazkak edo indarkeria-egoerak saihesteko eta/edo jakinarazteko, eta prozesua hobetzeko eta ikasleen beharretara egokitzeke, tresna erabilgarria izan dadin. Hona hemen Educok (2022) proposatutako gomendio batzuk:

1. Ongizatearen eta babesaren koordinatzailearen eginkizunak, estatuko araudiak jada adierazitakoak, indartzea eta, batez ere, haurren eta nerabeen parte-hartzea eta entzute aktiboa sustatzea.

2. Gomendatzea ongizatearen eta babesaren koordinatzaileak lidergoa har dezala Keeping Children Safe erakundearen nazioarteko estandarretan eta UNE 0070 Arauan oinarritutako babeserako eta tratu onerako politiken garapenean.

3. Ratio onargarriak definitzea, ikasleen/irakasleen proportzioaren edo ikastetxeetako gizarte-, kultura- eta hezkuntza-arazoen arabera, bai eta aurreikusten den arrisku-mailaren arabera ere.

4. Ongizatearen eta babesaren koordinatzaileak bere gain hartu beharreko premien eta erantzukizunen arabeko denbora-dedikazioa zehaztea, autonomia-erkidegoko arauen bidez.

5. Pertsona horren eskakizunak definitzea, eta behar diren baliabideak bideratzea haren ordainsarira, prestakuntza-planera eta eginkizunak betetzera.

6. Protokolo espezifiko bat ezartzea babes-agente gehiagorekin koordinazioa errazteko eta, horrela, kasuen berri arin ematea eta haien jarraipena egitea ahalbidetzeko.

7. Hezkuntza-administrazioek rol garrantzitsu bat hartu behar dute beren gain, eta pertsona horiei behar adina baliabide esleitu ere bai, babesa, prestakuntza, ebaluazioa, jarraipena eta laguntza emateko.

HAURREN ESKUBIDEAK ARDATZ DITUEN GOBERNANTZA SUSTATU: haien gaitasunak eta agentzia aitortuz, eta administrazioetan parte hartzeko espazioak sustatzeko bideak eraikiz, hezkuntzarekin eta haurrekin lotutako erakundeetatik hasita, kontseiluen, ordezkarien batzordeen, kontsulta publikoen eta abarren bidez. Bide horiek bi noranzkoko komunikazio-tresnak izan behar dute, eta egungo herritartzat hartzen diren neska-mutilen gaitasunak indartu behar dituzte.

Erreferentzia bibliografikoak

Augsberger, A., Collins, M. E., Gecker, W., & Dougher, M. (2018). «Youth civic engagement: do youth councils reduce or reinforce social inequality?». *Journal of Adolescent Research*, 33(2), 187-208.

Càmara, A. M. N., Morell, I. A., Berñe, A. L., & Bernet, J. T. (2013). «El concepto de ciudadanía construido por jóvenes que vivieron experiencias de participación infantil». *Bordón: Revista de pedagogía*, 65(3), 93-108.

Educo (2022). Guía para jóvenes activistas: <https://educowebmedia.blob.core.windows.net/educowebmedia/educospain/media/docs/activa-la-escucha/guia-del-activista.pdf>

Educo (2022). La figura del Coordinador o Coordinadora de Bienestar y Protección en centros educativos. Recomendaciones: <https://educowebmedia.blob.core.windows.net/educowebmedia/educospain/media/docs/activa-la-escucha/material/guia-didactica/guia-activa-la-escucha-eus-2021.pdf>

Educo (2021). Mamá siempre me ha dicho que tengo mis derechos, pero no lo veo. El Derecho a la Educación y a la Participación post COVID-19 explicado por niñas y niños de España: <https://educowebmedia.blob.core.windows.net/educowebmedia/educospain/media/docs/descargas/encuesta-global-covid19-informe-tecnico.pdf>

Educo (2020). Guía Didáctica para el desarrollo de actividades que fomenten la escucha activa en los centros educativos: <https://educowebmedia.blob.core.windows.net/educowebmedia/educospain/media/docs/activa-la-escucha/material/guia-didactica/guia-activa-la-escucha-eus-2021.pdf>

Educo (2020). Kit de la Escucha: <https://educowebmedia.blob.core.windows.net/educowebmedia/educospain/media/docs/activa-la-escucha/material/kit-anexos/kit-activa-la-escucha-eus-2021.pdf>

Educo (2019). Érase una Voz: <https://educowebmedia.blob.core.windows.net/educowebmedia/educospain/media/docs/campanas/informe-eraseunavoz-resumen-2019.pdf>

Fielding, M. (2011). «La voz del alumnado y la inclusión educativa: una aproximación democrática radical para el aprendizaje intergeneracional». *Revista Interuniversitaria de Formación del profesorado*, 25(1), 31-61.

Freedson, J. (2021). *Children's Right to be heard: We're talking: are you listening?* Joining Forces.

Gillett-Swan, J. K., & Sargeant, J. (2019). «Perils of perspective: Identifying adult confidence in the child's capacity, autonomy, power and agency (CAPA) in readiness for voice-inclusive practice». *Journal of Educational Change*, 20(3), 399-421.

Imanian PhD, S., & Thomas PhD, N. P. (2020). «Independent Children's Rights Institutions as Facilitators of Dialogue between Children and the State: An Opportunity for Mutual Empowerment?» *Societies Without Borders*, 14(1), 6.

Kennan, D., Brady, B., & Forkan, C. (2019). «Space, voice, audience and influence: the Lundy model of participation (2007) in child welfare practice». *Practice*, 31(3), 205-218.

Lundy, L. (2007). «Voice is not enough: conceptualising Article 12 of the United Nations Convention on the Rights of the Child». *British Educational Research Journal*, 33(6), 927-942.

Moran-Ellis, J., & Sünker, H. (2013). *Adult trust and children's democratic participation. In Participation, citizenship and trust in children's lives* (32-51). Palgrave Macmillan, Londres.

Rinaldi, C. (2006). «La pedagogía de la escucha: La perspectiva de la escucha desde Reggio Emilia. Una mirada reflexiva hacia la cultura de la infancia». Bogotá.

Shier, H. (2001). «Pathways to participation: Openings, opportunities and obligations». *Children & society*, 15(2), 107-117.

Tisdall, E. K. M., & Cuevas-Parra, P. (2021). «Más allá de los desafíos comunes en los derechos de participación de niños, niñas y jóvenes: el potencial del activismo». *The International Journal of Human Rights*.

Unicef (2006). *Convención sobre los Derechos del Niño*.

Unicef (2013). *Overcoming Adultcentrism*.

Unicef (2021). *Protección de la infancia desde el entorno escolar. El coordinador/a de bienestar y protección*.

